

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)  
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)  
2007/2008 IKASTAROA

**ARGIBIDEAK:**

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorenara adierazten da.

<<Zergatik idazten dugu? Zergatik irakurtzen?>> Oraingoan neuk galdetzen diot neure buruari: Zergatik idazten dugu? Laura Mintegik azken *Jakineko* artikulu batean dioenagatik, hainbat idazlek «maitatua izateko» erantzun omen zioten Durangoko Azokan galderari. Eta gizonezkoek bakarrik erantzun omen dezakete horrela -itxaropen horrekin esan nahi duela uste dut-.

Besteak beste, esan gabe zegoen zerbait esan dezakegulakoan idazten dugula esango nuke nik. Hala izan da, inolaz, erromantzezko literaturan, non, idazle askok, latinez adierazten ohitutako jende kultuak, hainbat gai, kultu jotzen ez ziren hainbat gai -amodioa kasu-, tratatzeko beraien ama-hizkuntza erabili zuten. Hortxe dator, besteak beste, latina -egun ingelesa bezalaxe- jende kultu guztiarengana **irits** zitekeen momentuan, kulturazko ez ziren hizkuntzak erabiltzeko arrazoietako bat. Izan ere, zertarako balio zion gizon **jakintsu** bati latinak, amodio gaitan, emakume ez letratu bati maite zuela adierazi ezin bazion?

Idazleak euskal literaturari -hasiera hartatik- irakurle bila ekiten dio, eta ez beti amodioaren lekukotasuna emateko, baizik eta borroka erlijioso ideologikoen muin-muina bizi izan duen herri baten lekukotasuna emateko: konpainia on baten beharra aldarrikatzearekin, hurbileko irakurle baten beharra ere aldarrikatu zuten aurrena Leizarragak eta gero Axularrek.

Gaur egun ere, dena esanda eta jakinda balego bezala mintzo direnek bestelakorik aditzera eman arren, ez dut uste dena esana dagoenik. Izan ere, literatura kakorraz-lana bezalakoa da. Hariak molde batera eta bestera korapilatuz negu hotzean, zuloak izan arren, estaltzeko baliagarri zaigun ohazala josteko ahalegina da literatura.

Eta zer, kritikaren eta plangintzen ufadapean, ohazalaren zuloak aurkitzen baditugu? Har beza bakoitzak bere orratza, izan bedi orain irakurle eta hurrena idazle.

Batzuek, aldiz, uste dudanez, orratza hartu beharrean guraizeak hartzen dituzte, kritiko izatea beti falta den zerbait nabarmentzeko postura hartzea balitz bezala. Eta **labana** gauza askotarako da tresna ona eta egokia, baina ez euskal literaturaren ohazala egiteko. Alferrik bilatuko dugu ez dagoena dauden gauzen artean. Harantzago eta harantzago jo, gailur guztiak igo eta... ez dagoena ezin baita bilatu. **Sortu** bakarrik egin daiteke ez dagoena; sortu, literaturan kopiatze literalak nekeza denez. Literatura, ezer bada, sortze-lana baita. Idazle eta irakurle artean egin beharreko sortze-lana, gainera.

Nire irudiko, euskal literaturaren zuloetan itotzeko gehiegizko joera zabaltzen ari da. Gakorratz-lana, literatura bezalaxe, egin eta desegin daiteke, askatu eta berregin nahi adina aldiz. Baina, horretarako, idazle eta *irakurleek* kode pragmatiko jakina behar dute euskal literaturen ere. Idazleak irakurlea bilatu behar du; nahi duen irakurlea aurkitu orduko, **atxiki** egin behar du. Idazleak, inolaz, zerbaitetaz eta norbaitez aritu nahi du, ezezagun batekin aritu ahal daitekeen moldean, erreparo gabe eta aurre-juzku gabe, berak behar dituen *azalpenak*, irakurleak ere beharko dituelakoan; eta liburura etorri .denak zerbait irakurri nahi duelakoan esperantzarekin idazten du. Irakurleak, berriz, liburuan beste inon aurkituko ez duen munduan murgilduz bere korapiloak askatu nahi ditu; beste inon eskainiko ez zaion patxada eta *isiltasun*-molde horretan, zerbait ulertzeko esperantza ziurta dezake.

Jakintsu usteko irakurleak, aldiz, kritika, jakinduria eta beste hainbat gauzaren izenean, beste liburu guztietan aurkitu omen duena bilatu nahi bide du euskal liburu bakoitzean; eta horrela, arestian aipatutako kode hori -xumea eta xumea delako pragmatikoa den kode hori- apurtzean, irakurketaren aukera ere apurtu egiten du: ezin du inolako libururik irakurri, dena jakintzat ematen duelako euskal literatura kontuetan.

Irakurle horrek ez du uste literaturan negu hotzean behar dugun ohazala denik, eta ni, berriz, dagoeneko, asko xamar eta ondo xamar idatzi delakoan nago; euskal literaturan ere asko xamar eta ondo xamar idatzi delakoan nago. Eta gainera, gehiena irakurri gabe dagoelakoan nago. Beti handitzen ari den idatzi gabekoaren zuloaren aitzakian.

*Tere Irastorza. Nabarra aldizkaria. 2005eko abendua*

## **Galderak**

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *iritsi, jakintsu, sortu, labana, atxiki* (Puntu bat).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (2 puntu).
3. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin. Hona hitzak: *irakurleek, jakintsu, isiltasun, azalpenak* (Puntu bat).
4. Aztertu testuaren egokitasuna (3 puntu).
5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
6. Aipa itzazu zein izan ziren Ramon Saizarbitoriaren idazlanak eta koka ezazu bere garaian (Puntu bat).

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)  
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)  
2007/2008 IKASTAROA

**ARGIBIDEAK:**

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Egunen batean Diasporaren Nazioarteko Zentroa izango denaren lehen harria jarria dago jadanik. Eusko Ikaskuntzako EuskoSarek eta Azkarateko udalak elkarrekin bultzaturiko nazioarteko proiektu baten esparruan, gaur arte amets hutsa zena egia itxura hartzen hastea lortu da aurtengo udan Argentina, Korea, Serbia, Errusia, Turkia, Maroko, Alemania eta Frantziako hainbat gazteri esker. Etorkizunean Diasporaren Nazioarteko Zentroaren egoitza izango den Azkarateko gaztelua berritzeko lehen kanpaina **burutu** da abuztuaren 4tik 26ra.

Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroa Behereko udal horren artean izenpetu lankidetzak hitzarmenak bideratu du lan esparru hori abiatzea, horren antolakuntzan Concordia elkarteak lagundu duelarik (1950etik borondatezko nazioarteko lan esparruak antolatzen aditua). Hainbat zereginetan erabiltzea da eraikuntza historiko hori berregokitzeko azken helburua: udal alorrekoak, kultura mailakoak eta nazioarteko trukeari dagozkionak, hots, sorterrira bisitatuko duten euskaldunei edo euskaldunen ondorengoei harrera egiteko gune egonkorra izatea.

700.000 euro inguruko aurrekontua hartara zuzendurik, Azkarateko gazteluak Udaleko bulegoak hartuko ditu beheko solairuan, bai eta jatetxe bat ere, Nafarroa Behereko herri horrek ostalaritza **alorrean** duen hutsunea betez. Hasieran erabaki denez, lehen solairuan herriarekin zerikusia duten kultura erabilerak gauzatuko dira (7 Probintziak Elkartearen bidez), bertan egoitzetariko bat izango duen EuskoSarek munduko euskaldunei zuzenduriko zerbitzuekin batera. Eraikuntza horretako hirugarren eta azken solairua, berrehun metro karratukoa, aterpe gisa baliatuko da bai arbasoen lurra bisitatu nahiko duten familiak hartzeko eta bai emigrazioaren inguruko prestakuntza gaiak landuko dituzten udalekuen egoitza izateko ere.

Joan den abuztuan egindako lehen kanpainan, gazteluaren parte bat egokitzea izan da aurreneko zeregina, borondatezko lankideen funtsezko etxebizitza premiak betetzearen. Gerokoan lan egitera etorriko diren gazteen mesederako izango da lan hori; izan ere, datorren urtarrilerako edo otsailerako (uda australaren garaia) aurreikusia baita bigarren nazioarteko kanpaina. Lan hori egindakoa, eraikuntzaren ezkerreko hegal osoa barnetik husteari ekin zioten, teilatuaren zati bat erori ondoren urez bete baitzen. Azkenik, Azkaraten tabernarik ez denez, ostatu **xume** bat moldatu da bertakoen eta lankideen arteko elkartzea erraztearen.

Bi animatzaile profesionalak zuzenduriko programa ludikoak Euskal Herriaren errealitate geografikoa eta kulturala ezagutzea zuen helburu. Ildo horretatik, oinezko ibilaldiak antolatu dira Azkarate inguruan zehar Nafarroa Behereko paisaia nabarienen bila.

Gazteek hainbat gune ezagutzeko aukera izan dute: artzain **saroi** bat Iratin, Larrun mendia eta hango usategiak. **Halaber**, hirietarako bisitaldiak egin dituzte Donibane-Lohitzunera edo Donostira, horren Aste Nagusia zela eta.

*Eusko Ikaskuntza aldizkaria. 2006ko urria.*

## **Galderak**

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *burutu, alor, xume, helburu, saroi, halaber*. (1'5 puntu).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (1'5 puntu).
3. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak: *zuen, ditu, du, da* (Puntu bat).
4. Lizardi: aipa itzazu bere idazlan eta idazteko erabili zuen estiloa (Puntu bat).
5. Aztertu testuaren koherentzia (3 puntu).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).